

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Oñatiko Campus berria inauguratu du MIK Ikerketa Zentroarekin batera

2010/10/29

Oñati, 2010eko urriak 27

Dudarik gabe, 2010 urte historikoa izan da Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultatearentzat. 50. urteurrena eta hori ospatzeko antolatutako ekimenez gain, fakultatearen proiekturik garrantzitsuenetakoa inauguratzen dugu gaur, hots, Oñatiko campus berria. Campus honetan unibertsitate mailako prestakuntza eta ikerketa elkarrekin joango dira. Izan ere, instalazio berean garatuko baitira unibertsitatearen eta MIK Ikerketa zentroaren jarduerak.

20.000 metro koadroko azalerarekin eta 13,2 milioi euroko inbertsioarekin, campus berria dimentsio handietako proiektua dela esan dezakegu: Mondragon Unibertsitatea eta MIK ikerketa zentroa finkatzeko eta zabaltzeko oinarritzko euskarria.

Inaugurazioan hezkuntza eta enpresa sektoreko pertsona entzutetsuak bildu dira, artean, Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko Errektorea, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia, Isable Celaá Hezkuntza sailburua, Lander Beloki Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanoa, Xabier Mugarza Fakultateko Errektore Kontseiluaren presidentea, Javier Sotil MIK Zentro Teknologikoaren presidentea, Aitor Urzelai MIK zentroko zuzendari-nagusia, Mikel Cabieces, Euskal Herriko Gobernuako delegatua eta Lourdes Idoiaga, Oñatiko alkatea.



Nazioartean erreferente

Campus berria Oñatiko Ibarako kirol-guneko lursailetan eraiki da, 20.000 metro koadro baino gehiagoko azalera batean eta eraikitako azalera 8.752 metro koadrokoa izan da. Eraikinak hiru solairu eta sotoa dauka eta bertan prestakuntzarako hogeitabat gela daude eta beste zazpi etengabeko prestakuntza eta masterrak eskaintzeko, ikerketa jarduerak egiteko laborategiak, informatika gelak, hizkuntza laborategiak, etab. Horrez gain, areto nagusi handi bat, kudeaketarako eta administrazioarako gune bat, departamentuak, liburutegia, bilera gelak eta 200 aparkaleku ditu eraikinak.

Gaur egun, Fakultatean 700 ikasle ari dira graduak, graduondoak edota doktozetak egiten. Zentzu horretan, instalazio berriak diseinatzerakoan kontuan hartu dira jada eskaintzen diren tituluen eta ezartzea aurreikusten diren titulu berrien beharrak. Horrela, instalazio berriek 1.000 ikasle hartzeko gaitasuna izango dute.

Azpiegitura berri honetan hiru arlo landuko dira. Alde batetik, enpresa kudeaketaren arloko prestakuntza, Goi Mailako Hezkuntzako Esparru Europarrari egokitutako bi titulaziora: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua eta Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua. Bestetik, etengabeko prestakuntza eta graduondoak, lanean ari diren zuzendari eta profesionalen programak eskainiz etengabe prestatu eta garatzeko aukera izan dezaten. Eta campusaren hirugarren oinarri dagokionez, ikerketari, MIK proiektu berria garatuko da. Proiektu honetan fakultateko ikerketa-unitatetik eta MIK zentroak berak orain arte garatutako proiektutik eratortzen diren gaitasunak bilduko dira. Ikerketa zentro berriaren xedea goi mailako kudeaketa aurreratuaren alorreko ikerketa jarduerak garatzea izango da eta bi helburu nagusi hauek izango ditu: kudeaketa aurreratuaren alorrean ezagutza berriak sortzea eta garatzea eta lortutako emaitzak enpresa munduari eta, oro har, gizarteari transferitzea.

Campusak enpresa kudeaketari buruzko prestakuntza eta ikerketan nazioarteko erreferente bilakatu nahi du. eta horretarako unibertsitateko

ikerketa eta enpresa, antolakunde eta erakundeei zuzendutako ikerketa elkartuko ditu. Horrela, Oñatiko campus berriaren helburua argia da: Balio-kate berean unibertsitate mailako irakaskuntza eta ikerketa, maila guztietan, eta transferentziara bideratutako ikerketa batzea, eta hori guztia enpresa kudeaketarekin lotuta.

MIK Zentro Teknologikoa

MIK Ikerketa Zentro berria Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultatearen ikerketa-unitatearen eta MIK Ikerketa zentroak egun arte garatutako jarduera ikertzailearen batuketaren emaitza da. Hemendik aurrera egitura bakar batean batuko dira aipatutako bi erakundeen sinergiak eta lankidetzak: unibertsitateko ikerketa eta enpresa, antolakunde eta erakundeei zuzendutako ikerketa.

Lau urte barru, ikerketa-unitate berrian 50 ikertzaile arituko direla aurreikusten da. Helburua da bikaintasuna lortzea eta kudeaketa aurreratuaren arloko ikerketan nazioarteko abangoardian kokatzea. MIK Ikerketa Zentroaren ikerketak, oro har, lau ikerketa-ildo hauetan oinarrituko dira: erakunde-kudeaketan garatzen ari diren dinamika berriak, kooperatiben eta gizarte ekonomiako erakundeen kudeaketa, ekintzailtza eta negozio berriak eta erakunde- eta gizarte-berrikuntza.